En este sector, en uno de los sondeos se localizó la esquina de un murete de adobe y en otro los restos de una cimentación de lajas de piedra similar a las localizadas en el I y correspondientes a estructuras de madera.

zatiak (forma leunak 4, 8, 27, 35, 36,...; nahiz dekoratuak: 29, 30, 37a eta b, ...); arruntak (sukaldekoak, mahaikoak, **dolia**, paretainak; pigmentatu zein pigmentatu gabeak); beira; **pondera** eta metalezko materialak, burdinazko arotz gaiak eta jazkerarekin zerikusia duten gai ugariak nagusiki, **clavi caligae**-ak direlakoak esaterako. Lorturiko materiala aski homogenoa izan da, kronologiari dagokionean azaleko materialak eskaintako datuekin bat datoirena eta, beraz, den dena erromatarren Goi Inperioaren garaian koka genezake.

Material hauekin batera, egitura-gaiak ere azaldu ziren hiru zundaketatan, eta egitura hondakinak beste bitan. Adreiluaren antzeko eraikuntza elementu gutxi aurkitu izanak eta zurgintzarekin zerikusia duten burdinazko objektuen eta zur errearen hondakinen ugaritasunak, zurezko egiturak jasotzeko harzabalezko zimentu korrituak erabiltzen zituztela adierazten digute. Beraz, neurri ttikiko egiturak dira, oso esanguratsuak halere.

II. sektoreko miaketan, arkeologi material dexente aurkitu zen. Jasotako materialak kronologia zabal batean koka litezke, Goi Inperioaren garaiko eta batez ere berantiarreko materiala bait zen.

Arkeologiari dagokionean, bertan eginiko zundaketen emaitzak positiboak izan ziren, batean izan ezik. Goi Inperioaren garaiko mailarekin egin genuen topo, lehenengo sektorean aurkituriko antzeko estratigrafi ezaugarriak zituena, alegia, iraulitako geruzaren azpian, eta estratu ttiki antzu batek bereizten zuen ibai-terrazaren mailatik. Zundaketetan, kronologia berantiarri dagokion material gutxi batzu aurkitu baziren ere, nahasiriko geruzan izan zen betiere eta kontestutik aterata, beraz. Bestalde, potentzia estratigrafikoa homogenoagoa zen sektore honetan, 30-50 zm. ingurukoa, Goi Inperioaren garaiko maila emankorrena ere 20 zm ingurukoa zen bitartean.

Goi Inperioaren garaiko mailaren kronologiari dagozkion material garbiak agertu ziren, T.S.H. zatiak (2, 4, 8, 27, 35, 36... bezalako forma leunekoak eta 29, 30, 37... bezalako dekoratuak), objektu arrunten hondakinez gainera (sukaldekoak, mahaikoak...). Metalezko elementuak zurgintzarekin eta, neurri txikiago batean, zapatagintzarekin zerikusia zuten tresnak ziren: **clavi caligae** direlakoak alegia.

Sektore honetan eginiko zundaketa batean adobazko murru ttiki baten ertzak aurkitu ziren eta beste batean harzabalezko zimentazio baten hondakinak, lehenengo sektorean aurkitutakoaren antzekoak eta zurezko egiturei zegozkienak.



40

El Riberón/Ruines. Vista general de los sondeos C del sector I. A la izquierda, murete corrido de lajas.

I. sektoreko zundaketaren ikuspegi orokorra. Ezkerretara, harzabalezko murren tiki korritua.

Así pues, hemos podido comprobar cómo en el yacimiento de El Riberón/Ruines, se registra estratigráficamente un nivel romano altoimperial en las zonas en las que se había localizado material de esta cronología en superficie, si bien con resultados nulos en alguno de los sondeos, lo que implica una reducción del área inicialmente estimada para el mismo. Este nivel cuenta con abundante material arqueológico asociado a él en su contexto, así como con restos de estructuras consistentes en cimentaciones corridas de lajas de piedra para levantes de madera, indicando por tanto la presencia de construcciones de escaso porte, que recuerdan construcciones de tipo campamental. Por su parte, el nivel bajoimperial que hubo de existir en el yacimiento a juzgar por los numerosos hallazgos de esta cronología que se recogen en una zona del mismo, sólo está presente en las tallas superiores del paquete estratigráfico, habiendo sido por tanto, muy afectado por las tareas agrícolas. Este horizonte, tendría además una extensión menor que la correspondiente al altoimperial, dado que sólo se registró en la zona correspondiente al sector II.

A.1.2.2. **Albeurmendi** (San Román de San Millán)

Campaña de sondeos estratigráficos.
Dirigida por Eliseo Gil Zubillaga.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

Durante los días 18 al 30 del mes de Septiembre del año en curso se ha desarrollado la campaña de sondeos estratigráficos programada para este yacimiento. Esta actuación arqueológica se ha integrado dentro de un proyecto general para el estudio de la Romanización en Alava que estamos llevando a cabo, uno de cuyos objetivos fundamentales ha sido, —en cuanto al planteamiento de los trabajos de campo—, la obtención de un conjunto de seriaciones estratigráficas fiables de yacimientos de estos momentos en nuestra provincia y la definición de los mismos en cuanto a su tipología y carácter.

Honenbestez, El Riberon/Ruines aztarnategian, estratigrafiari dagokionean, erromatarren Goi Inperioaren garaiko maila lur azalean kronologia honi dagokion materiala aurkitu zen zonaldean erregistratzen dela frogatu ahal izan dugu. Zenbait zundaketatan ez zen emaitzarik jaso eta, beraz, hasieran zundaketetarako erabiliko zen esparrua murriztu zen. Maila honek bere kontestuari loturiko arkeologi material ugari aurkezten du, baita zurezko egiturak jasotzeko harzabalezko zimentu korrituzko egituren hondakinak ere. Neurri ttikiko eraikuntzen adierazle. beraz, eta kanpamentu moduko egiturak gogora ekartzen dizkigutenak. Bestalde, bertako zonalde batean egin diren kronologia honetako aurkikuntza ugariak salatu bezala, aztarnategian izan behar zuen Behe Inperio garaiko maila pakete estratigrafikoaren goiko aldean soilik aurki dezakegu eta, beraz, oso hondatuta dago laborantzaren eraginez. Maila honek erromatarren Goi Inperioaren garaia dagokionak baino hedadura murriztagoa du, bigarren sektorean baino ez bait zen aurkitu.

A.1.2.2. **Albeurmendi** (San Roman de San Millan)

Zundaketa estratigrafikoen kanpaina.
Eliseo Gil Zubillagaren zuzendaritzapean.
Arabako Foru Aldundiak Subentzionatua.

Aurtengo Irailaren 18 eta 30 egunen artean burutu zen aztarnategi honetarako programatu genituen zundaketa estratigrafikoen kanpaina. Arkeologi ekintza hau Arabako Erromanizazioa ikertzeko burutzen ari garen proiektu zabal baten atala dugu. Landa-lanei gagozkielarik, une honetan geure herrialdean dauden aztarnategien seriozio estratigrafiko fidagarriak lortzea eta beraien ondoko tipologia nahiz izaerari buruzko definizioa zehaztea izan dira proiektu honen helburu nagusiak.

Se consideraron pues a efectos de excavación dos zonas o Sectores principales cuyos resultados escuetamente expuestos serían:

— En el *Sector I*, habíamos localizado abundante material arqueológico en superficie, entre el que destacaba una importante concentración de material cerámico constructivo.

En este Sector se realizaron un total de 17 sondeos, que se rebajaron bien hasta el nivel de la roca natural del terreno, bien hasta que la aparición de estructuras arqueológicas en toda la superficie del sondeo impedía su continuación.

Los sondeos dieron como resultado 12 arqueológicamente fértiles y 5 estériles. Entre los 12 primeros destacaremos por sus resultados especialmente 9. Estos 9 sondeos fueron realizados en la zona anteriormente citada, correspondiente a la concentración de materiales constructivos en superficie. Tuvieron como objeto la identificación y delimitación de las estructuras aparecidas y la obtención de su seriación estratigráfica.

Las estructuras de este grupo de sondeos comienzan a aparecer a unos 15/20 cm. de la superficie actual del terreno (pavimentos de **opus caementitium**) y en algunos casos alcanzan a una profundidad de unos 130 cm. (zanjas de cimentación). Se trata de los restos de un complejo termal de gran porte (acaso unas termas públicas por sus proporciones, no olvidando tampoco la razonable relación de este yacimiento con la **mansio** de **Alba** del itinerario de Antonino), del que en la zona excavada se ha localizado e identificado la parte correspondiente a los **hypocausta** que podrían extenderse aproximadamente por unos 142 m.², lo que nos habla de la notable entidad de este conjunto. Estos **hypocausta** se conservan sobre todo a nivel de solera, presentando en algún caso la última fila de las **pilae** con los ladrillos circulares **in situ**. Se han detectado igualmente las zanjas de cimentación pertenecientes a los muros que delimitarían esta estructura. Desgraciadamente los muros fueron saqueados para la obtención de sillares, restando no obstante alguno aún en su lugar, —quizás debido a sus grandes dimensiones—. En los bordes de los **hypocausta** se aprecian también extensiones de la solera de **opus caementitium** que pudieran corresponder a canales o entradas. Se conservan por último elementos de mampostería y algún sillar que marcarían la separación entre los dos **hypocausta** existentes. Otros elementos constructivos a destacar serían también las fijas para las cámaras de aire de las paredes y los restos de vidrios de ventana. A nivel cronológico y tras la interpretación de su seriación estratigráfica, se trataría de una construcción de época al-

Indusketari dagokionez, bi alde edo sektore nagusizat hartu ziren, eta hona, laburbilduz, eginiko ikerketen ondoko emaitzak:

—/. *Sektorean*, arkeologi material ugari aurkitu genuen lur azalean, eraikuntzan erabiltzen zen zeramika gai pila ederra nagusiki.

17 zundaketa burutu ziren guztira sektore honetan: zenbaitetan, zorua haitz biziaren mailaraino errebajatu zen; bestetan, zundaketa-eremu osoan azaleratutako arkeologi egiturek oztopatu egiten zuten estratigrafia lana.

12 zundaketa arkeologi mailan emankor gertatu baziren ere, beste 5ek ez zuten fruiturik batere eman. Lehen 12 horien artean, 9 nabarmentzen dira besteetarik, oso emaitza bereziak eman zituztelako. Zundaketa hauek lehen aipaturiko eraikuntza-gai pila ederra gordetzen zuen eremuan burutu ziren. Azaleratu ziren egiturak identifikatu eta zehaztu ondoan, haien seriazio estratigrafikoa burutu zen.

Zundaketa multzo honen egiturak egungo lur-azaletik 15-20 zm. barrura hasi ziren agertzen (**opus caementitium** zoladurak) eta, zenbaitetan, 130 zm-tarainoko sakonetan ere azaldu izan dira (Zimentazio zangak). Neurri handiko termategiak dira (terma publikoak, agian, neurriei erreparatzen badiegu. Ez ahantz, nolahi ere, az-tarnategi honek Antonino-ren ibilbidean agertzen den Alba mansio-arekin zituzkeen harremanak), eta induskaturiko sektorean **hypocausta** direlakoei zegokien aldea aurkitu eta identifikatu egin dugu, dagoeneko, eraikuntza multzo honen garrantzia adierazten digun 142 m²-ko eremu batean. **Hypocausta** hauek zoladuran kontserbatu dira batez ere, **pilae-en** azken lerrokadako adreilu zirkularrak eta bertan agertzen zaigularik batzutan. Atzeman ere egin dira eraikuntza hau mugatzen zuten murruei zimentazio zangak. Zoritzarrez, murruek harlanduak hartzeko deuseztatu zituzten, nahiz harlanduren bat edo beste bere horretan ikus daitekeen oraindik, handiegia zelako edo **Hypocausta** horien ertzetan **opus caementitium** delakoaren zoladura-aldeak ere ikus daitezke, kanale edo sarrera gisa erabiliko ziratekeenak. Badira, azkenik, manposteria-gai batzu eta dauden bi **hypocausta** horien arteko bana-murruko harlanduren bat. Aipatu beharreko beste eraikuntza gai batzu ditugu murruei aire-kamaretarako ontzak eta leihoetako beira hondakinak. Kronologiari gagozkioz, seriazio estratigrafikoaren ondotik zera ondoriozta genezake: eraikuntza Goi Inperioaren garaikoa da, berriro altxatu eta gero (sute-estratu bat aurkitu dugu) Behe Inperioan eta beste helburu batzutarako erabiliko zena. Honenbestean sartu gara kultur materialen

toimperial que tras su amortización (se detecta un estrato de incendio) es reutilizada, probablemente con otros fines, en el Bajo Imperio. Ello nos introduce en el capítulo de la cultura material. Los ajuares recuperados pertenecen a la última etapa de la vida de este establecimiento, siendo en general bastante escasos. Se trata de restos cerámicos (sobre todo común —ollas Vegas 1, plato Vegas 16, etc.—; algo de T.S.H.T. —formas lisas 4, 53, y decoradas 37—); vitreos (cuenco y plato); y a destacar un pequeño lote de 3 pequeños bronce constantinianos.

Los otros tres sondeos con resultados arqueológicamente positivos fueron ubicados periféricamente al conjunto termal, y como se verá ya sin relación directa con él.

Uno fue practicado al E. del conjunto anteriormente citado. Este sondeo presentaba un paquete estratigráfico de unos 150 cm. sobre la terraza de cantos que marcaría la base natural del terreno. Pasada la capa revuelta por la labranza se apreciaba la presencia de un tenue horizonte bajoimperial con presencia sobre todo de fragmentos cerámicos y algún tipo monetar. Finalmente, y descansando directamente sobre la terraza se evidenciaba la presencia de un nivel altoimperial (T.S.H., cerámica común, restos de fauna, etc.).

Los otros dos sondeos fértiles se situaron al NE. del conjunto termal. Presentaban un paquete estratigráfico variable entre los 50 y 100 cm. hasta la base natural del terreno, con un horizonte bajoimperial representado sobre todo por producciones cerámicas (T.S.H.T. y común).

En cuanto a los cinco sondeos estériles fueron practicados al NW. del conjunto termal, al E. y al SE.

— En el *Sector II* se detectó la presencia de abundante material arqueológico en superficie, muy homogéneo de cronología altoimperial, localizándose sobre todo al S. del mismo.

En este Sector se practicaron un total de 4 sondeos, siendo propiamente fértil solamente uno de ellos. El paquete estratigráfico hasta la base natural del terreno era aquí más escaso —entre 30-50 cm.—, lo que habrá contribuido a la destrucción del nivel arqueológico por las labores agrícolas.

El sondeo fértil presentaba a unos 30 cm. de la superficie actual del terreno unas estructuras consistentes en muretes de lajas, correspondientes a la cimentación de algún edificio de escaso porte. Asociado a estas estructuras se recogieron restos de ajuar, sobre todo tipos cerámicos altoimperiales.

arloan. Aurkitu dugun etxe-tresneria urria eraikuntza honen bizitzaren azken garaikoa da. Zeramika hondakinak ditugu (arrunta gehien batean —Vegas eltze 1,16 Vegas plater, etab.—; T.S.H.T. zerbait—forma leunak 4, 53, eta dekoratuak 37—); beirakiak (goporra eta platera); eta guztietan nabarmentzen diren hiru brontze ttiki konstantiniar.

Arkeologi emaitza positiboak ekarri zituzten beste hiru zundaketak multzo termalaren inguruan burutu baziren ere ez dute azken honekiko harreman zuzenik, ondoan ikusiko dugun bezala.

Bata lehen aipaturiko termategiaren ekialdean egin zen. Zundaketa honek aterarazitako 150 zm-ko pakete estratigrafikoa eremuaren zoru naturala zatekeen harkoskoterrazaren gainean zegoen. Laborantzak iraulitako geruza pasa ondoan Behe Inperioaren garaiko zerrenda xumea agertzen zen, zeramika puska batzuk eta hainbat txanponak osatua. Azkenik azaldu zen, terrazaren gainean pausaturik, Goi Inperioaren garaiko maila (T.S.H., zeramika arrunta, fauna hondakinak, eta abar).

Beste bi zundaketa emankorrak termategiaren ipar-ekialdean burutu ziren. Pakete estratigrafikoa 50 eta 100 zm-en artekoa zen zoru naturaleraino, eta Behe Inperioaren garaiko maila zeramika gaiek osatzen zuten batez ere (T.S.H.T. eta arrunta).

Antzu gertatu ziren beste bost zundaketei dagokionez, esan dezagun termategien ipar-mendebaldean, ekialdean eta hego-ekialdean burutu zirela.

— *//. sektorean*, hegoaldean batez ere, arkeologi gai ugari aurkitu zen lur azalean, oso homoginoa eta Goi Inperioaren garaikoa.

Sektore honetan 4 zundaketa burutu ziren, horietako bakarra emankor gertatuz. Eremu hartako zoru naturalerainoko pakete estratigrafikoa urriagoa izanik, 30-50 zentimetro, laborantzak deuseztatuko zuen neurri handi batean maila arkeologikoa.

Zundaketa emankorrak egungo lur azaletik 30 zm. barruragoko harri zabalezko muru ttiki batzuk osatzen zituzten, munta eskaseko eraikuntza baten zimentazioari zegozkiokeenak. Egitura hauekin batera etxe-tresneria zenbait jaso zen, Goi-Inperioaren garaiko zeramika hondakinak batez ere.

De acuerdo a las previsiones del programa original, al término de los trabajos de excavación se procedió a la reposición de tierras cubriendo los sondeos. No obstante, dadas las especiales características e interés de algunas de las estructuras descubiertas —el conjunto termal, que se trataría de la superficie calefactada por **hypocaustum** más amplia documentada en excavación en nuestro territorio. Sería deseable la adecuada conservación del mismo, para lo cual se elevaron las oportunas propuestas a las instancias competentes.

Jatorrizko programan aurrikusitakoari jarraiki, indusketa lanak bukatu ondoan lurra bere tokian jarri zen berriro, zundaketa lanak estalirik. Halaz ere, aurkitututako egitura zenbaiten ezaugarri bereziak eta interes handia kontutan harturik—terma multzoa, gure lurraldeko indusketa dokumentazioen artean, **hypocaustum** bidez berotutako eremurik handiena dateke. Komenigarri litzateke eremu hori ahalik eta egokien kontserbatzea eta xede horretan bideratu ziren, dagokien erakundeen aurrean, beharreko eskariak.

Albeiumendi. Cuadro A4 del Sector I. Solera de **opus caementitium** delimitada por la caja de cimentación del muro exterior con sillar in situ.

Albeiumendi, I. Sektoreko A4 Laukia. **Opus caementitium**-eko zoladura, kanpoko murraren zimentazio kaxak mugatua, harlandua bertan ikus daitekeelarik.



A.1.3. PROSPECCIONES

A.1.3.1. Cuenca del río Araia

Dirigida por Mikel Beorlegi Eraña.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

Durante el año 1989, ha iniciado sus trabajos de investigación, el grupo integrado por: Luis Gil, Ibón Uso-biaga y, Mikel Beorlegi (que actúa como coordinador).

Se han comenzado las tareas de prospección en las entidades más orientales, es decir, Egino, Ilarduia, y, Andoin. Como tarea preliminar, se han determinado aquellos lugares que, en principio, pudieran aportar una mayor información, valiéndose para ello, de documentación cartográfica, fotográfica, toponímica, referencial a nivel de catastro, y datos geomorfológicos. También han sido elegidas las parcelas por las que en un futuro inmediato pasará el carril de desdoblamiento de la N-1.

Se ha efectuado una tarea de valoración y de determinación espacial de aquellas noticias que, sobre la zona figuran en la Carta Arqueológica (1987). También han sido estudiados materiales depositados en el Museo Provincial de Arqueología, junto a los recogidos en la primera fase de prospecciones.

Como resultados, se han localizado nuevos yacimientos al aire libre, ubicados preferentemente junto a las confluencias de los grandes arroyos que aportan sus caudales al río Araia, por la vertiente del norte. Concretamente, próximos a los arroyos de Atxipi y Lezaun.

Estos yacimientos se asientan sobre terrenos aluviales del Cuaternario y, en fincas asentadas en formaciones Coniacienses.

Algunos contingentes líticos han podido localizarse sobre alteraciones cromáticas del suelo; como más representativos, los denominados Basalde (Egino), Sorabil y Callizondo (Ilarduia), indicios de posibles asentamientos estables.

En estos trabajos se han ido integrando por otro lado: Valentín Iurre, Santiago Langarica, M.^a Jesús Martínez de Ilarduia y, Pedro M.^a Ceberio.

Hemos contado con una ayuda económica de la Diputación Foral de Álava, canalizada a través del Instituto Alavés de Arqueología.

A.1.3. MIAKETAK

A.1.3.1. Araia ibaiaren arroa

Mikel Beorlegi Erañaren zuzendaritzapean
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

1989. urtean hasi zen ikerlanean Luis Gil, Ibon Uso-biaga eta Mikel Beorlegi jaunek (azken hau koordinatzaile gisa) osatutako taldea.

Ekialderago dauden herrietan miaketa lanak hasi dira dagoeneko, Egino, Ilarduia eta Andoin herrietan alegia. Hasi baino lehen, informazio zabalagoa eskaini lezaketen lekuak aukeratu ziren, horretarako kartografia, fotografia, toponimia, katastroari buruzko eta geomorfologia mailako dokumentazioa bilduz. Aukeratu ere egin dira luze gabe N-1 errepedearen bideadar berriak hartuko dituen lurzatiak.

Lan berezia burutu dugu Arkeologi Kartan (1987) eskualdeari buruz agertzen diren berriak baloratu eta espazioan kokatzen. Arabako Arkeologi Museoa gordetako hainbat material ere aztertu dugu, miaketen lehen garaian aurkitu genuenarekin batera dagoena.

Eraitzen aldetik, aipa dezagun haize zabaleko aztarnategi berriak aurkitu direla, Araia ibaira iparraldetik isurtzen duten erreka handien bidarteetan kokatuak. Atxipi eta Lezaun erreka inguruetan, zehazki.

Aztarnategi hauek Koaternarioko alubioaldeetan eta formazio koniazarretan egokitutako finketan daude.

Harri osagarri zenbait zoruaren aldaketa kromatiko batzuren gainean aurkitu dugu; horien arteko garrantzitsuenak Basalde (Egino), Sorabil eta Kallizondo (Ilarduia), egoitza egonkor posible batzuren adierazle dira-teenak.

Lan guzti hauetan, gainera, beste honako pertsonen ere hartu dute parte: Valentín Iurre, Santiago Langarica, María Jesús Martínez de Ilarduia eta Pedro Zeberio.

Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso dugu, Arabako Arkeologi Institutuaren bitartez bideratu dena.



Vista panorámica de las Peñas de Egin, con la boca de la conocida cueva de «La Lece», (a la derecha), la cantera de Surbi (Yacimiento desaparecido) en el centro, y la cueva de «Los Gentiles» a la izquierda.

Eginoko Haitzen jkuspegia, «La Lece» izeneko lezearen ahoa (eskuinean), Surbiko harrobia erdian (Desagertutako aztarnategia) eta «Jentilak» («Los Gentiles») izeneko lezea ezkerrean.

A.1.3.2. Valle del río Ayuda

Dirigida por Luis Ortiz Tudanca.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

Las prospecciones arqueológicas llevadas a cabo en la cuenca del río Ayuda se realizaron durante los meses de Enero y Febrero de 1989, afectando a los términos locales de las entidades de Mijancas, Lacervilla, Berantevilla, Portilla, Ozana, Grandival, Muergas y Araico.

Este trabajo de campo ha supuesto la localización y catalogación definitiva de 23 yacimientos al aire libre, fotografiado de los mismos, estudio de su ubicación, morfología y tipología y el inventariado de los materiales arqueológicos.

Con todo ello se confirma a este área como una importante zona de paso entre el valle del Ebro y el norte de Álava, con una importante intensidad en la ocupación durante los períodos del Neolítico a la Edad del Bronce, destacando además la presencia en varios de estos yacimientos de materiales campaniformes.

Los yacimientos son:

- La Encrucijada (Mijancas)
- Ribera II (Ozana)
- Ribera IV (Ozana)
- Barranas (Muergas)
- Santa María (Muergas)
- Cartaceros II (Grandival)
- Zurbalday II (Muergas)
- Zurbalday IV (Muergas)
- Gurugú (Muergas)
- Senda Muergas (Lacervilla)
- Ripaldi Oeste (Grandival)
- Cerrada (Portilla)
- Ribera I (Ozana)
- Ribera III (Ozana)
- Ribera V (Ozana)
- Saranas (Muergas)
- Cartaceros I (Grandival)
- Zurbalday I (Muergas)
- Zurbalday III (Muergas)
- Zurbalday V (Muergas)
- Las Llanas (Muergas)
- Ripaldi (Grandival)
- Periquín (Grandival)

A.1.3.2. Aiuda ibaiaren harana

Luis Ortiz Tudancaren zuzendaritzapean.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Aiuda ibaiaren arroan eginiko miaketa arkeologikoak 1989ko Urtarril eta Otsailean burutu ziren, honako herrietako lurraldeetan ihardunik: Mijancas, Lacervilla, Berantevilla, Portilla, Ozana, Grandival, Muergas eta Araico.

Landa-lan honi esker, haize zabaleko 23 aztarnategi aurkitu eta katalogatu dira betikoz, argazkiak atera dira eta haien kokaleku, morfologia, tipologia eta arkeologi gaien inbentarioa aztertu dira.

Honenbestean, lurralde hau Ebro haranetik Arabako iparralderako igarobide garrantzitsua izan zela ziurta genezake, Neolitikotik Brontze Arora bitartean okupazio maila garrantzitsua aurkezten duelarik. Aipatzekoak dira hauetako aztarnategi batzutan aurkituriko material kanpaniformeak.

Hona aztarnategiak:

- La Encrucijada (Mijancas)
- Ribera II (Ozana)
- Ribera IV (Ozana)
- Barranas (Muergas)
- Santa María (Muergas)
- Cartaceros II (Grandival)
- Zurbalday II (Muergas)
- Zurbalday IV (Muergas)
- Gurugu (Muergas)
- Senda Muergas (Lacervilla)
- Ripaldi Oeste (Grandival)
- Cerrada (Portilla)
- Ribera (Ozana)
- Ribera III (Ozana)
- Ribera V (Ozana)
- Saranas (Muergas)
- Cartaceros I (Grandival)
- Zurbalday I (Muergas)
- Zurbalday III (Muergas)
- Zurbalday V (Muergas)
- Las Llanas (Muergas)
- Ripaldi (Grandival)
- Periquin (Grandival)

A. 1.3.3. Llanada, Ribera y Rioja Alavesa

Dirigida por Eliseo Gil Zubillaga.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

Esta actuación se integra dentro de un proyecto general para el estudio de la Romanización en Álava que estamos llevando a cabo, uno de cuyos objetivos fundamentales ha sido—en cuanto al planteamiento de los trabajos de campo—, la realización de un programa de prospecciones orientado hacia la consecución de los siguientes objetivos:

Labores de prospección. Revisión de «La Iglesia».

A. 1.3.3. Arabako Lautada, Erribera eta Errioxa

Eliseo Gil Zubillagaren zuzendaritzapean.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Arkeologi ekintza hau Arabako Erromanizazioa ikeritzeko burutzen ari garen proiektu zabal baten atala dugu. Landa-lanei gagozkielarik, helburu nagusienetako baton-doko honetan zehaztuko ditugun xedeak lortzeko miaketa programa oso bati ekitea izan da. Hona helburu horiek zertan ziren:

Miaketa lanak. «Eliza»ren azterlana.



- Revisión de yacimientos ya conocidos, de cara a su valoración, con el establecimiento de su topocronología. Incidiendo especialmente en aquellos en los que se preveía la realización de posteriores trabajos de excavación.
- Localización de nuevos yacimientos para su incorporación al catálogo de los ya existentes en la Carta Arqueológica de Álava.
- Comprobación y estudio de estructuras arqueológicas in situ, en yacimientos concretos.

De acuerdo a la programación original, se ha procedido a la realización de un total de 19 salidas, que se concretarían en:

- A. Zona de la Ribera: 4 salidas, desglosadas en:
 - 2 al yacimiento de El Riberón/Ruines (Mimbredo), localización ya registrada, para el estudio preliminar a la realización de una campaña de sondeos estratigráficos, que se ha desarrollado en Septiembre del año en curso.
 - 2 al yacimiento de Carasta (Caicedo Sopeña), localización ya registrada, para el estudio preliminar a la realización de una campaña de sondeos estratigráficos, prevista para el próximo año.
- B. Zona de la Llanada alavesa: 8 salidas, desglosadas en:
 - 2 al yacimiento de Atxa (Vitoria-Gasteiz), localización ya registrada y excavada por nosotros, para labores de control de su estado y aplicación de herbicidas.
 - 2 al yacimiento de Albeiumendi (San Román de San Millán), localización ya registrada, para el estudio preliminar a la realización de una campaña de sondeos estratigráficos que se ha desarrollado en Septiembre del año en curso.
 - 4 al yacimiento de Iruña (Trespuentes), para el levantamiento planimétrico de los pavimentos de mosaico puestos de nuevo al descubierto por el Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava.
- C. Zona de la Rioja alavesa: 3 salidas: desglosadas en:
 - 2 al yacimiento de Oyón (Oyón), localización ya registrada, para su revisión y estudio.
 - 1 al yacimiento de Peña Parda (Leza), localización ya registrada, para su revisión y estudio.
- D. Áreas periféricas: 4 salidas, desglosadas en:
 - 2 al yacimiento de Uralde (Treviño), localización

— Ezagun diren aztarnategiak berrikusi eta haiei buruzko balorapena egin, topokronologia zehaztuz, eta indusketa-lanak aurrakusi zituzten horietan bereziki sakonduz.

— Aztarnategi berrien aurkikuntza, Arabako Arkeologi Kartako katalogoan dauden besteekin batera ezartzeko.

— Aztarnategi jakin batzuetan, arkeologi egituren azterketa eta ikerketa «in situ» (bertan).

Hasiera batean programatu bezala, 19 irtenaldi antolatu eta honela burutu ziren:

- A. Erriberaldea: 4 irteera, honela banaturik:
 - 2 irteera El Riberon/Ruines aztarnategira (Mimbredo). Leku hau erregistratu egin da aurtengo Iraileko zundaketa estratigrafikoen kanpainaren aurretik buruturiko azterketan.
 - 2 irteera Carastako aztarnategira (Caicedo Sopeña). Leku hau erregistratu egin da datorren urteko zundaketa estratigrafikoen kanpainaren aurretik buruturiko azterketan.
- B. Arabako Lautadaldea: 8 irteera, honela banaturik:
 - 2 irteera Atxako aztarnategira (Gasteiz). Leku hau guk erregistratua eta induskatua genuen, egoera kontralatu eta herbizidak bertan erabiltzearen ondorioak aztertzeko.
 - 2 irteera Albeiumendiko aztarnategira (San Roman de San Millan). Leku hau erregistratu egin da aurtengo Iraileko zundaketa estratigrafikoen kanpainaren aurretik buruturiko azterketan.
 - 4 irteera Iruñako aztarnategira (Trespuentes), Arabako Foru Aldundiaren Berriztapen Zerbitzuak berriro agerian utzi dituen mosaiko zolen planoak jaso eta burutzeko.
- C. Arabako Errioxaldea: 3 irteera, honela banaturik:
 - 2 irteera Oioneko aztarnategira (Oion). Leku hau erregistratuta zegoen, berrikusketa eta azterketa burutzeko.
 - Irteera 1 Peña Pardako aztarnategira (Leza). Leku hau erregistratuta zegoen, berrikusketa eta azterketa burutzeko.
- D. Eskualde periferikoak: 4 irteera, honela banaturik:
 - 2 irteera Uraldeko aztarnategira (Treviño). Leku

ya registrada, para el estudio preliminar a la realización de una campaña de excavaciones de urgencia, que se han desarrollado en Julio y Octubre de 1990.

- 1 al yacimiento de Añastro (Añastro), localización no registrada, para su catalogación, revisión y estudio.
- 1 al yacimiento de Manzanos (Manzanos), localización no registrada, para su catalogación, revisión y estudio.

A nivel metodológico, se ha procedido a la confección de las oportunas fichas descriptivas para cada yacimiento, y a su incorporación al mapa general de dispersión de yacimientos que estamos elaborando.

hau erregistratu egin da 1990-ko Uztailean eta Urriar burutu den indusketa kanpainari ekin aurretik eginiko azterketan.

- Irteera bat Añastroko aztarnategira (Añastro). Leku hau ez zegoen katalogazioa, berrikusketa eta azterketa burutzeko erregistratuta.
- Irteera bat Manzanoseko aztarnategira (Manzanos). Leku hau ez zegoen katalogazioa, berrikusketa eta azterketa burutzeko erregistratuta.

Metodologiari dagokionez, aztarnategi bakoitzari dagozkion fitxa deskribatzaileak osatu dira eta sarrera egin diegu leku guzti hauei buruz burutzen ari garen aztarnategi mapa nagusian.

«Iruña. Montaje de la parrilla para el levantamiento fotogramétrico del mosaico del Sector 'M'»

«Iruña. 'M' Sektoreko mosaikoaren jasoketa fotogrametrikorako solairuaren muntaketa».



A.1.3.4. Valle de Valdegobía

Dirigida por Francisca Sáenz de Urturi.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

De acuerdo con el plan de investigación para el estudio de los yacimientos prerromanos (Edad del Bronce y Edad del Hierro), romanos y medievales del valle de Valdegobía y alrededores, elaborado por miembros del Instituto Alavés de Arqueología, y para el que fue concedido permiso a nombre de la responsable: Francisca Sáenz de Urturi, redactamos el siguiente informe.

Se procedió a la revisión de las siguientes zonas y lugares de acuerdo con un esquema preestablecido y que es el siguiente:

- a) Revisión de lugares, con posibilidades de que existan yacimientos arqueológicos.
- b) Revisión de yacimientos ya conocidos para el estudio definitivo de la zona y sus áreas de influencia espacial.
- c) Revisión de despoblados medievales documentados o con iglesias románicas.

La metodología a seguir ha sido la habitual de prospecciones, tomando todas las notas posibles, especialmente en lo referente a estructuras de habitación o fortificación y distribución de hallazgos de material cara a la posible realización de sondeos estratigráficos.

Las salidas realizadas durante el año han sido escasas, siendo la causa de este descenso el haber dedicado los fines de semana, fechas habituales para su realización—, de los meses de junio hasta noviembre, ambos inclusive a la preparación y excavación del yacimiento de Los Castras de Lastra.

De acuerdo con el esquema anteriormente trazado las zonas y yacimientos revisados han sido los siguientes:

- a) Se han visitado los términos de Nograro y San Millán a la búsqueda de nuevos yacimientos.

En nuestras numerosas salidas por el Valle de Valdegobía habíamos observado la existencia de unos altozanos con una altitud media que gira en torno a los 600-700 m. y que presentaban unas características que los hacían susceptibles de que pudieran corresponder a asentamientos antiguos.

— En Nograro se revisaron los altozanos situados a la izquierda de la carretera que desde Villanueva de Valdegobía se dirige al pueblo de Nograro. La andadura se

A.1.3.4. Gaubeako Harana

Francisca Saenz de Urturiren zuzendaritzapean.
Arabako Foru Aldundiak subentzionaia.

Hona hemen Arabako Arkeologi Institutuko partaide batzuk, Francisca Saenz de Urturi ardurapean, Gaubeako Haranean eta inguruetan, Erromanizazio aurreko (Brontze Aroa eta Burdin Aroa), erromatarren garaiko eta Erdi Aroko aztarnategien azterketarako ikerketa plangintzari jarraiki eginiko lanei buruzko txostena:

Aipaturiko eskualde eta lekuak honako eskemaren arabera ikuskatu ziren:

- a) Arkeologi aztarnategiak izan litezkeen lekuen ikusketa.
- b) Ezagun diren aztarnategien berrikusketa, eskualdea eta haren inguruak behin betirako aztertuak izan daitezten.
- c) Erdi Aroan dokumentaturiko bizileku abandonatuak edota eliza erromanikodunak.

Miaketetan erabilitako metodologia ohizkoa izan da, beharreko xehetasun guztiak jasoz, bizileku edo gotorlekuen egituretan aurkitutako materialen banaketari dagokionean bereziki eta egin litezkeen zundaketa estratigrafikoei begira betiere.

Urtean zehar eginiko irteerak gutxi izan dira, hone-lako lanak burutzeko hartu ohi diren asteburuak, Ekainetik Azaroa arte, biak barne, Lastrako Los Castros aztarnategiko prestaketa eta indusketa lanetan eman ditugulako.

Arestian aipaturiko eskemaren arabera, ikuskatutako eskualde eta aztarnategiak honako hauek izan dira:

- a) Nograro eta San Millan lekuak bisitatu dira, aztarnategi berriak aurkitzeko xedean.

Gaubeako Haranean barrena egin genituen ibilaldi ugari horietan ez ziren gure begietara gabe gelditu batz bestea 600-700 metroko altuera duten muino batzuek, ezagarrak bereziki izaki, antzinako bizilekuak izan zitezkelakoa adierazten bait zuten.

— Nograron, Gaubeako Uribarritik Nograro herrira doan errepidetik ezker aldera dauden mendi muinoak ikuskatu ziren. Ibilaldia herritik jaisten den erreka gairi-

inició desde un pequeño puente que cruza el arroyo que descende del pueblo.

Los altozanos que revisamos presentan sus laderas aterrazadas y en los lados Oeste y Norte fuertes pendientes. En la parte alta existen varias fincas en las que el cereal ya estaba naciendo y no permitió su revisión.

No se halló ningún material que permita atribuirlo a etapas antiguas. Será necesaria una nueva revisión, en una fecha en que las fincas estén libres para comprobarlo.

— En la zona de San Millán, enclave burgalés, existía un altozano que desde hace años nos había llamado la atención, procediendo a su revisión.

Se halla aterrazado con pendiente suave hacia el Sur y fuerte escarpe hacia el Noroeste, domina ampliamente la zona de San Millán y Arroyo. No se pudo hallar ningún tipo de material arqueológico, aunque será necesaria una nueva revisión por hallarse sus fincas con cereal alto, y otras en barbecho.

— En la zona de Barrio se revisaron una serie de valles situados entre el pico de Bachicabo, por su parte baja, y el pueblo de Barrio. En la zona de Linares/Linaza, existen varios abrigos en uno de los cuales se han grabado cruces en las paredes de arenisca. No se pudo recoger ningún material que pudiera aportar datos sobre su utilización o no como lugares de habitación. Al margen del abrigo con grabados, existen otros susceptibles de haber podido ser utilizados en etapas prehistóricas.

Las revisiones en yacimientos conocidos no tuvieron más finalidad que la de comprobar algunos datos para el estudio que estamos realizando, y también la de obtener algunas fotografías. En ninguno de ellos se recogió material arqueológico, pues todo aquel que pudimos observar no aportaba ningún dato nuevo, prefiriendo dejarlo en su sitio.

Al margen de nuestras salidas al valle de Valdego-bía, fue también preciso que giráramos otras visitas a lugares apartados de este valle, motivadas por las informaciones recibidas de personas conocidas sobre posibles hallazgos.

Una de estas visitas se realizó al pueblo de Echavarri Urtupiña ante la noticia de posibles hallazgos en la zona de trazado de la autovía con resultados totalmente negativos.

La otra visita fue girada al lugar de Vitoriano, ante la noticia de la destrucción de los restos que quedaban de la posible ermita de San Miguel, que según informaciones recibidas se ubicaba a la izquierda de la carretera de acceso al Santuario de Oro.

tzen duen zubi ttiki batetik hasi genuen.

Ikuskatutako muinoek terraza eginiko mazelak dituzte eta Mendebal nahiz Iparraldetik oso patartsuak dira. Gai-naldean laborea hazi xamarra zegoen nekazal eremuak ziren eta haien ikusketa ezinezko gertatu zitzaigun.

Ez genuen leku hartan antzinako garaiekin lotzeko bidea emango ligukeen materialik aurkitu. Ikusketa berri bat egin beharko da, lur sail horiek libre egon daitezenean.

— Burgosko San Millan aldean, bada aspaldidanik ikusmina piztu zigun mendi-muinoa eta haren ikusketari ekin genion.

Hegoaldetik malda leuneko terraza egina eta Ipar-mendendebal aldetik malkartsu den muino hau nabarmen agertzen zaigu San Millan eta Arroyo eskualdeko leku guztietatik. Ez zen inolako arkeologi materialik aurkitu eta ikusketa berri bat burutu beharko da, bertako nekazal lur-rak labore hazia nahiz labakian zeudelako.

— Barrio aldean, Batxikabo mendiko behekaldearen eta Barrio herriaren arteko haranak ikuskatu ziren. Linares/Linaza aldean diren harpeetako batean hainbat gurutze agertu da harearizko paretetan. Ez genuen harpe hura bizileku bezala erabili zen ala ez adieraziko ligukeen arkeologi aztarnarik aurkitu. Grabatuak dituen harpe horretaz gainera, badira prehistoriako garai desberdinetan erabiliko ziratekeen beste batzu.

Aztarnategi ezagunetan buruturiko ikusketek, argazki batzu egiteaz gainera, lantzen ari garen azterketa honetarako hainbat datu biltzea beste helbururik ez zuen izan. Ez zen arkeologi materialik horietako inon jaso eta ikusi ahal izan zirenak bertan utzi genituen, datu berririk eskaintzen ez zutelako.

Gaubeako Haranera eginiko irteerez gainera, haran horretatik urrunxeago diren beste leku batzutara ere joan ginen, pertsona ezagunek emaniko informazioak haietara bultzatuta.

Bisitaldi horietako batek Etxabarri-Urtupiña herrira eraman gintuen, autobidearen obretan zihardutelarik eginiko aurkikundeak zirela eta, baina emaitzak guztiz negatiboak izan ziren.

Beste bisitaldi bat egin genuen Bitoriano lekura, San Migel baseliza zatekeenaren hondakinen suntsipenari buruzko berria jaso ondoan. Hartu ditugun informazioen araber, baseliza hau Oroko Saindutegirako errepidearen ezker aldean zegokeen.

A. 1.3.5. Rioja Alavesa

Dirigida por Armando Llanos.

Prospecciones por La Rioja Alavesa, dan como resultado el hallazgo de un nuevo poblado, llamado «ALTO DE SAN CRISTOBAL» en jurisdicción de Labastida. La localización de algunos fragmentos cerámicos, apuntan a considerarlo dentro del mundo cultural de Cogotas I.

Entre las numerosas salidas de reconocimiento de nuevos posibles yacimientos, destacan por su interés algunas de ellas. En algunos casos se ciñen al hallazgo de nuevos materiales en yacimientos ya conocidos de antemano, correspondiendo en otros al descubrimiento de nuevos yacimientos.

Así en el Castro de Carasta en Hereña y en sus proximidades, se descubrieron materiales del tipo Monte Bernorlo, así como una lápida con grabado de bóvido y fragmentos de otras de tipo discoidal así como un denario de plata de la ceca de Turiasu. Estos materiales fueron puestos al descubierto por una remoción del terreno realizada para hacer un cortafuegos.

Rastros y materiales correspondientes a un establecimiento al aire libre posiblemente adjudicable al Bronce Medio/Final, se localizaron en las proximidades del pueblo de Estarrona. Fueron las obras llevadas a cabo en la circunvalación de Vitoria, las que removieron este yacimiento. Por las mismas causas, y en el enlace con la N-1, un corte dejado en un talud, puso al descubierto un estrato de fondos de cabaña.

También se detectó como en obras llevadas a cabo por empresas públicas, se había incidido sobre yacimientos conocidos y catalogados. Se cursaron las oportunas denuncias ante los organismos competentes.

A.1.3.6. Prospecciones geofísicas en el poblado de La Hoya (Laguardia)

Dirigidas por J. M.^a González de Durana.

Coincidiendo con la XVII campaña de excavaciones arqueológicas en este poblado —la última del programa de investigaciones en este yacimiento— se llevó a cabo esta prospección geofísica. El trabajo fue realizado por

A.1.3.5. Arabar Errioxa

Armando Llanosen zuzendaritzapean.

Arabar Errioxan egindako miaketan ondorioz, biztanlegune berri bat aurkitzen da, «SAN KRISTOBAL GARAI» izenekoa, Bastidako udalerrian. Keramika pusketa batzuk aurkitu izanak Cogotas I-eko kultur munduaren barrukoa dela ematen du aditzera.

Aztarnategi berriak atzemateko burutu diren artea askoren artean, emaitza interesgarriak eskaini dituzte batzuk. Batzuetan aztarnategi ezagunetan aurkituriko material berriak diren bitartean, aztarnategi berriak ditugu besteetan.

Honenbestez, Hereñako Castro de Carasta aldean eta inguruetan, Monte Bernorio motako materialak aurkitu ziren, hala nola idiantzeko grabatua duen hilarria, grabatu diskoidaleko hainbat hilarriren zatikiak eta Turiasuko zekan grabaturiko zilarrezko denari bat. Material guzti hauek azalera ageri ziren, alde hartan suaren kontrako bide bat urratzeko lur hustuketan ari ziren batean.

Estarrona herriaren inguruetan Brontze Aro Ertain/Azkeneko haize zabaleko bizileku bati dagozkion aztarnak eta materialak aurkitu dira. Gasteizeko ingurubiderako obretan ari zirela mugitu ziren aztarnategi honetako lurrrak. Arrazoi berberengatik, N-1 errepedearekiko loku nean, ezponda bat eratzeko egin zen ebaki batek agerian utzi zuen txabola hondoek osatutako estratua.

Hauteman ere egin zen enpresa publikoek buruturiko obra batzuetan dagoeneko katalogatuta zen hainbat aztarnategi ezagun ez zutela errespetatu. Beharreko denunziak luzatu ziren dagokien erakundeen aurrean.

A 1.3.6. La Hoyako biztanleguneko miaketa geofisikoak (Biasteri)

J. M.^a Gonzalez de Duranaren zuzendaritzapean.

Biztanlegune honetan egiten zen XVII. arkeologi zundaketa kanpainarekin batera—aztarnategi honetako ikerketa programaren azkena—, miaketa geofisiko hau egin zen. Euskal Herriko Unibertsitateko Jose Maria Gonzalez

el profesor José María González de Durarria, de la Universidad del País Vasco, con el apoyo y colaboración de miembros del **Instituto Alavés de Arqueología**.

Con esta investigación se trata de conocer la estructura constructiva general, de aquellas partes que no llegarán a excavar de momento, y que unida a la zona, excavada durante estos diecisiete años, darán una visión total del trazado urbano del poblado.

Es ésta la primera vez, en Álava y territorios vecinos, que un método de prospección no destructivo se programa para el estudio total de un yacimiento completo, con una superficie prospectada de aproximadamente 3 hectáreas. Para ello se establecieron módulos de 12x12 metros, subdivididos en cuadros de 1 metro. Reticulando así todo el yacimiento, se procedió a la toma de las mediciones. Teniendo en cuenta la amplia superficie a prospectar, se diseñó un equipo (bastidor con electrodos incorporados, fuente de alimentación mediante baterías, etc.), así como una toma de datos informatizada, que permitiese agilizar este proceso.

Una vez procesados todos los datos obtenidos, será posible conocer y disponer así de una planimetría general del yacimiento.

La validez del método, ya demostrado en este yacimiento y en el de Iruña, según los resultados expuestos en la tesis doctoral del Dr. González de Durana, lo hacen aconsejable para su utilización en otros yacimientos y sobre todo como fórmula para conocer las estructuras constructivas que puedan existir en aquellos lugares donde se piensen realizar obras que conlleven remoción del terreno (carreteras, urbanizaciones...) y sea aconsejable tener los suficientes datos previos a la redacción del proyecto definitivo, como protección del Patrimonio Histórico.

de Durana irakasleak egin zuen lana, **Arabako Arkeologi Institutuko** kideen laguntzaz eta lankidetzaz.

Ikerketa honen bitartez, oraingoz indusiak izango ez diren aldeetako eraikuntz egitura orokorra ezagutu nahi da; horrek, hamazazpi urteotan indusitako aldean egingo dakoarekin, biztanlegunearen hiri taiuketaren osoko ikuspegi bat emango digu.

Hauxe dugu, Araban eta auzokide diren lurraldeetan, suntsikor ez den miaketa metodo bat, aztarnategi oso bat erabat aztertzeko programatzen den lehenbiziko aldia, 3 hektareakoa dela, gutxi gorabehera, miatu izandako alde. Horretarako 12 x 12 metroko moduluak egin ziren, metro leko koadroetan banatuak. Aztarnategia horrela saretu ondoren, neurketak hartu ziren. Miatu beharreko luzenzabalaren handi kontuan hartuta, ekipo bat (elektrodun bastidorea, nateria bidezko elektrindar iturria, etab.) eta datu-informatizazio bide bat diseinatu ziren, prozesu hau arinagotzeko moduan.

Ateratako datu guztia prozesatu ondoren, aztarnategia ezagutu eta planimetria orokorra eduki ahal izango da.

Aztarnategi honetan eta Iruñakoan, Gonzalez de Durana Doktoarearen doktorego tesian azaldutako datuen arabera, demostraturik geratzen denez, metodo honen baliagarritasunak aholkatu egiten du metodo berori beste aztarnategietan ere erabiltzea, batez ere lurra iraultzea daramaten obrak (errepideak, urbanizazioak...) egin nahi direneko lekuetan egon daitezkeen eraikuntz egiturak ezagutzeko formula den aldetik, eta, Ondare Historikoa babesteko helburuz, behin-betiko proiektua idatzi baino lehen behar ainako datuak edukitzea aholkarri denetan.

A.2. BIZKAIA



1. Kurtzia
2. Santa Catalina
3. Arenaza I
4. Lumentxa
5. Forua
6. Elgezua
7. Aloria
8. Loiola

A.2. BIZKAIA

A.2.1. EXCAVACIONES

A.2.1.1. Taller al aire libre de Kurtzia (Barrica)

VI Campaña de excavaciones.
Dirigida por Margarita Muñoz.
Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

Durante el verano de 1989 finalizamos el sondeo de 10 metros cuadrados que habíamos iniciado en el año 84 en el yacimiento al aire libre de Kurtzia (Barrica, Bizkaia), lo que nos permite presentar una primera aproximación de resultados.

Hemos levantado todo el sedimento arqueológico fértil en 25 lechos, los cuales se presentan estratificados de forma irregular, ya que en su borde Norte se encuentran dos niveles geológicos separados por una capa de tierra, en la que los vestigios arqueológicos son muy escasos, mientras en el borde Sur sólo se constata la presencia de un único nivel, menos denso que los anteriores.

Sin embargo, no existe ninguna discordancia cultural entre los materiales hallados, ya que todos ellos, tanto los que aparecen sedimentados en un único nivel, como los que aparecen en dos, pertenecen al mismo momento cultural, Musteriense de Denticulados, en el que predominan escotaduras, denticulados, perforadores, raeders...; algunos útiles hechos con técnica Levallois, etc. Teniendo en cuenta la característica principal del asentamiento, ser un taller de sílex, abundan también las lascas, trozos informes de sílex, núcleos y restos de núcleos, etc.

El hecho de que el sondeo esté situado en la mitad de la ladera del monte Curcio, unido a que tanto los afloramientos naturales de sílex como parte del asentamiento humano están en la cumbre, además de que ya

A.2. BIZKAIA

A.2.1. INDUSKETAK

A.2.1.1. Kurtziako haize zabaleko tailerra. (Barrika)

VI. Indusketa Kanpaina.
Margarita Muñozen Zuzendaritzapean.
Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua.

1989ko udan bukatu genuen Kurtziako (Barrika, Bizkaia) haize zabaleko aztarnategian 1984ean hasia genuen 10 metro karratuko zundaketa. Gertakari honek emaitzen lehen aurrerapena aurkezteko bide ematen digu.

Sedimentu arkeologiko emankor osoa 25 geruzetan jaso dugu, forma irregularrez estratifikaturik azaltzen direnak, zeren eta Iparraldeko ertzean bi maila geologiko aurkitzen bait dira lur geruza batek banaturik, beronetan aztarna arkeologikoak oso urriak direlarik. Hegoaldeko ertzean maila bakarra aurkitu dugu, besteak baino dentsitate gutxiagokoa.

